

Mundu osoan artzaintzarako erreferentea da

IMK Artzain Estolak 11 urte daramatza eta mundu osoan artzaintzarako erreferente bilakatu da. Euskal profesional eta ikasleak hartzen ditu eta baita beste erkidegoetatik eta herrialdeetatik datozenak ere. Eskolak eta ardi latxen artaldeak osatzen duten binomio hau esnetarako ardien azpisektorean estrategia nagusi moduan finkatu da, prestakuntzaren eremuan. Eskola honek tokiko arrazak (latxa) erabiltzeko sistema defendatzen du eta oinarri ditu animaliak eta ingurumena errespetuz erabiltzea eta lurraldea gestionatzea (larrea erabiltzea). Gainera, sektore garapen eta ikerketa erakundeen eta elkarteen laguntza du, prestakuntza programetan parte hartzen dute eta.

Urte hauetan IMK Artzain Eskolan 154 pertsona prestatu dituzte: 108 Euskal Autonomia Erkidegokoak, 23 Estatuko beste erkidegoetakoak eta beste 23 atzerrikoak, Txilekoak batez ere. 154 ikasle horietatik % 77 gizonezkoak ziren. Urtero 14 ikasle izan dira batez beste. 84 ikaslek artaldeak zituzten eta abereak batez beste 411 buru izan dira.

Urte horiek pasa eta gero, esan daiteke 154 ikasle guztira (ia % 51) artzainak edo artzainen seme/alabak direla eta sektorearenganako bokazio sendoa erakusten dutela. Batez beste 27 urte dituzte eta % 94a abeltzain gazteen kategorian sartzen da, sektorearen laguntzetarako terminoetan.

Gainera, ikastaro horiei esker 78 abeltzainek lanerako kualifikazioa lortuko dute ardien sektore sozioekonomikoan aritzeko.

Hasiera batetik IMK Artzain Eskola Oñatiko Arantzazu auzoko frantziskotarren Gomiztegi baserrian jarri zen. Eskolaren barruan lan garrantzitsua egin dute, prestakuntzari dagokionean izaera anitzeko ezaugarriak barneratuz: geografikoa, artzaintzaren beraren praktikekin bat datorren pasai inguru paregabearekin; pertsonala, esperientzia profesionala, jarrera aurrerakoa, bisitariari harrera ona egiten dion komunitatea eta produktiboa, esnetarako jarrera ezin hobearekin erakutsi duen ustiapeneko artalde bikainak ordezkatu.